


Juan Garzia nobelara itzuli da 'Erbeste' eleberriarekin



Juan Garzia

DV

Domingo, 19 de abril 2026, 07:46

Juan Garzia Garmendiak 'Erbeste' (Erein) nobela aurkeztu du. Idazle legazpiarra eleberrira itzuli da liburu honekin. Barne-bidaia sakon eta hunkigarria eskaintzen du, oroimenaren eta isiluneen artean korapilatua. Prosa fin eta gogoetatsuarekin, Juan Garziak erakusten du batzuetan etxera itzultzea dela erbesteak sakonena.

Tolosaldeko paisaia eraldatuaren atzean, familia baten zauri zaharrak eta esan gabekoak azaleratzen dira, irakurlea barruraino harrapatuz. Juan Garzia Garmendia (Legazpi, 1955), itzultzaile, idazle eta irakaslea da. Bere fikzio lan nagusiak 'Akaso', 'Itzalen itzal' eta 'Fadoa Coimbra' dira. Saiakeran, aipagarria da 'Txirritaren baratzea'. Besteak beste, Beckett, Borges, Chesterton, Henry James, Primo Levi, Rulfo eta Shakespeare euskaratu ditu. Melvilleren kasuan, 'Moby Dickekin' birbildu zuen Bartlebyrekin abiarazitako itzultzaile-ibilbidea.

Euskal prosari buruzko hainbat lan argitaratu ditu, erreferentziazko bihurtu direnak, eta, hobby kuttun, hainbat abestiz sortu edo euskaratu ditu. 'Erbeste' honekin itzuli da, hogeita hamar urteren buruan, zuzeneko sormenaren plazara.

Aurkezpenean, Inazio Mujika editorea izan zuen lagun eta idazleak azaldu zuen orain arte hirugarren pertsona idatzi badu ere, honetan protagonistak berak kontatzen duela istorioa. «Tarte handia uzten dio irakurlari, beste lanek baino gehiago. Pertsonaiek orain ez didate beren sekretu guztien berri ematen», esan du.

Garzia munduan zehar ibili ostean etxera itzuli den emakume baten azalean sartu da eta haren ahotik kontatu du itzulera horrek dakarrena. Herrian, protagonistak ez du utzi zuena aurkituko. Aldatuta aurkituko du etxea bera, baita harremanak ere. Beste toki batera itzultzen da.

Editoreak azaldu zuen Garziak ez duela «azalpen itxirik ematen eta, horrela, esaten ez duenaren bidez, irakurlea liburuaren parte egiten du». XX. mendearen amaieran kokatu du Garziak liburua eta garai horretan Euskal Herrian zegoen testuinguru politikoa ez da aipatzen, «eleberria beste gai batzuetan zentratzen baita».

Temas > Erein Argitaletxea

[Reporta un error](#)

Te puede interesar


Emocionante homenaje en Málaga a Julen Guerrero tras el fallecimiento de su mujer

El Correo




La Guardia Civil investiga un presunto acoso a aficionados del Atlético en la A-66 en Mérida

Hoy




La hoja de ruta del queso cántabro

El Diario Montañés




Una casa de 'alto standing' en León por poco más de 1,3 millones de euros

Leonoticias



La Feria de la Gamba de Punta Umbría repartirá 3.000 kilos de marisco

Huelva24



Lo más leído

1 - Muere el abogado Cosme Delclaux, secuestrado por ETA a mediados de los 90

2 - Fallece José María Guibert, exrector de la Universidad de Deusto


3 - De estar 85 días en la UCI a posar con los campeones

4 - ETS arrasa en Madrid: la gran fiesta en la que hasta Luz Casal cantó en euskera

5 - El 1x1 de los jugadores de la Real Sociedad ante el Rayo. ¿Tú qué nota les pondrías?

[Ir a la home >](#)**EL DIARIO VASCO**

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Domicilio social en Mikeletegi Pasealekua 1, 20009 - Donostia-San Sebastián

**vocento**

Webs de Vocento >

En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <https://ec.europa.eu/consumers/odr>.

Contactar | Quiénes somos | Aviso legal | Reglamento UE 2024/1083 | Condiciones de uso | Política de privacidad | Publicidad | Mapa web | Compromisos editoriales | Política de Cookies